

DIRU-ITURRIAK

Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Gure enpresaren diru-sarrera nagusia peluka pertsonalizatuen salmentatik dator. Peluka hauek diseinu oso errealistakoak dira eta bezero bakoitzaren beharretara egokitzen dira; beraz, aktiboen salmenta bidezko diru-sarrerak dira, eta ordainketa bakarrekoak.

Produktuen prezioa 400 € eta 1.200 € artekoa izango da, erabilitako materialaren kalitatearen, pertsonalizazio mailaren eta fabrikazio prozesuaren arabera. Prezio-eredua, oro har, prezio finkoa izango da, baina kasu berezietan prezio dinamikoa aplikatuko da: gaixotasun larriak dituzten pertsonentzat edo egoera ekonomiko zaurgarrian dauden bezeroentzat beherapenak edo laguntza-bonuak eskainiko dira.

Bezeroek hainbat ordainketa-modu izango dituzte aukeran, hala nola aurrez aurreko ordainketa edo online ordainketa, erosotasuna eta irisgarritasuna bermatzeko.

Hasierako inbertsioa handia izango denez (materialak, makinaria eta diseinu-prozesuak), laguntza beharko dugu, horretarako mailegu bat eskatu beharko dugu. Mailegu hori ordaintzeko bide nagusia peluken salmentatik lortutako diru-sarrerak izango dira, enpresaren diru-sarreraren ia %100 a osatuz hasierako fasean.

Gure proiektuaren hasierako fasean, diru-sarreraren banaketa honakoa izango da:

- **Peluka pertsonalizatuen salmenta (aktiboen salmenta, ordainketa bakarrekoa): %95**
Enpresaren diru-sarrera nagusia, produktu nagusia delako eta bezeroek hasieran zerbitzu osagarririk ez dutelako kontratatuko.
- **Zerbitzu osagarriak (doikuntzak, mantentze txikiak edo aholkularitza): %5**
Diru-sarrera osagarri txikia izango da, ez derrigorrezkoa eta bezero gutxi batzuek erabiliko dutena bakarrik.